

SECCION AMENA.



ON ANTONIO ARZÁC JAUNARI OIZARZUN-DIK DONOSTIA-RA.



Kapoi-pare ederrakiñ
 Onezkero zenbait
 Etorko zitzaizkala
 Iruditutzen zait.
 Gure echean, berriz,
 Nola ollorika
 Ezpaitegun izaten,
 Ezta arraultzika.
 Kolkarika ezpada
 ¿Non dira chituak,
 Ollasko chikiratu
 Kapoi gizenduak?

—¡Ja, jai! (esain duela),
 Bialkiña auše,
 ¡A zer erregalua!
 Bi arrizko eltze,—
 Biali orduroko
 Iruditzen nago.
 Orregatikan ere
 Beren ordurako
 Badijuaz, ta etzait
 Ajol-izpirika:
 Egiñ nere kontura
 Parra gogotika.

Oñati-ko purraja
Gozo lorezkua
¿Aditzerik bai aldu
Zeñen dan gozua?
Geiegiz aspertu ta
Arki ez ditezen,
Ara progatutzeko
Adiñ, adiñašen.

Ez kasorika egiñ
Dijuan pillari,
Begiratu, bakarrik
Nere naikuntzari;
Bedorrek jakiñika
Naitasunik bada
Negarra bera ere
Gozatutzen dala,
Egiñ, arren, onela,
Ta nere errua
Oso geldituko da
Estali ta aztua.

MIGEL ANTONIO IÑARRA.

